

ZARAUZKO BANDERA. Lau ontzi hiru segundoren barruan sailkatu ziren atzoko estropadan



GARI GARAIALDE
Orioko arraunlariak atzo Zarautzen ziaboga hartzen.

Orio aurkari barik Zarautzen

Oriotarrek erabakita utzi dute bandera lehen jardunaldian Koxtaperei 17 segundo kenduta

Ramon Basaldua | ZARAUTZ

Oriok Castro barik egin ditu azken hiru estropadak, eta hiruretan garbi geratu da oriotarrek ez dutela aurkaririk Euskal Herrian. Altxerriren gizonak erraz nagusitu ziren Gipuzkoako txapelketan, nagusi izan ziren Euskal Herrikoan, eta atzo erakustaldia eskaini zuten Zarautzen. Oriok hamazazpi segundo luze kendu zizkion bigarren sailkatu zen Koxtaperei, eta erabakita utzi zuen Zarauzko bandera.

Orio zen faborito nagusia bandera irabazteko, eta faborito izate hori areagotu egin zen kale zozketan lehenengo kalea tokatu zitzaionean. Izan ere, atzoko estropada eremua zego-

en moduan egonda lehen kalea zen egokiena eta kanpoko, laugarrena, eskasena.

Oriotarrak konfiantzaz ari dira, eta hobetzen doaz estropadatik estropadara. Altxerriren gizonak ez zuten huts egin nahi, eta lehenengo luzerako atzean utzi zituzten aurkariak. Ziabogan Oriok 6 segundo kendu zizkion Koxtaperei, 7 Urdabairi eta 8 Zumaia-Getariari.

Bigarren luzean Koxtapek eutsi egin zion Oriori. Urdabai eta Zumaia-Getaria, ostera, atzean geratu ziren. Hirugarren luzean Oriok apurtu, txikitu egin zuen estropada eta bandera, Koxtaperei 6 segundo gehiago kendu eta lehia erabakita utzi baitzuen. Hori gutxi balitz bezala,

SAILKAPENA

ONTZIA	DENBORA
1. Orio	19.56.85
2. Koxtape	20.14.15
3. Santurtzi	20.19.28
4. Urdabai	20.22.24
5. Isuntza	20.28.66
6. San Pedro	20.29.33
7. Zumaia-Getaria	20.30.24
8. Hondarribia	20.31.96
9. Trintxerpe	20.40.98
10. Donibaneke	20.45.06
11. Donosti-Arraun	20.50.52
12. Astillero	21.06.89

azken luzean oriotarrek beste 4 segundo kendu zizkieten *Erreka*-ri eta bandera erabakita utzi zuten. Atzetik, Urdabaik ez zuen amore eman laugarren

kaletik aritu arren, eta 2 segundo jan zizkion Koxtaperei azken luzean.

Santurtziko Itsasoko Ama izan zen protagonista nagusia bigarren txandan. *Sotera*-k sekulako estropada egin zuen, eta txandan erraz nagusitzeaz gain, Isuntza, Hondarribia eta Astilleroen aurretik, hirugarren bukatu zuen azken sailkapenean. Isuntzak lan polita egin zuen, eta bosgarren bukatu zuen. Hondarribiak ezin izan zuen gauza handirik egin laugarren kaletik.

Lehen txandan, San Pedrok estropada fina egin eta garai-pen garbia erdietsi zuen. *Libia* denboraldi txukuna egiten ari da.

lehenengo txandan; Portugalete, Algorta-Mundaka, Ur Joko eta Zierbena bigarren txandan eta Castro, Ondarroa, Pedreña eta Elantxobe-Arkote hirugarrenean. Esan beharrik ez dago Kortaren Castro dela faborito nagusia.

Zarauzko Bandera

Lehenengo txanda: Astillero, Donosti-Arraun, Donibaneke, Trintxerpe.

Bigarren txanda: Hondarribia, Zumaia-Getaria, Isuntza, San Pedro.

Hirugarren txanda: Orio, Koxtape, Santurtzi, Urdabai.

Lekua: Zarautz,

Ordua: Eguerdiko 12:00etan. (ETB 1)

HARRI-JASOTZEA

Mallabiko XI. Saria gaur, bost harrijasotzailereren partaidetzarekin

K. Alduntzin | DONOSTIA

Harri txikiekin jarduten duten harrijasotzaileek urteko egutegian azpimarraturik duten txapelketa da Mallabikoa, eta gaur jokatu da XI. Saria. Dagoeneko 15 urte beteko ditu, ofizialki 11. a bada ere. Bost harrijasotzaile ariko dira: Joxeramon eta Jexuxmari Iruretagoiena *Izeta II.a* eta *Izeta III.a* Aiakoak (Gipuzkoa), Javier Arriola *Egi* Elgoibarkoa (Gipuzkoa), Bernardo Ureta *Urpe* Arantzazukoa (Bizkaia), eta Mikel Lasarte Azpirozkoa (Nafarroa).

Iazkoarekin alderatuta, Lasartek beteko du Unai Arestiren lekua, horrek gazte mailako Euskal Herriko Txapelketa jokatu baitu etzi, Azkoitian (12:30). Gaur 100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola erabiliko dira. Bakoitzarekin bost minutuko txandak egingo dituzte, eta garailea bi harriekin jasoaldi gehien egiten duena izango da.

Iaz Izeta II.a garaile

Harri txikiak izanik, indarraz gain, azkartasuna ere beharko dira, eta bi arlo horiek ongien batzen dituen *Izeta II.a* da. Euskal Herriko Txapelketa eta Aiakoa irabazi ostean Igeldoko Harrian bigarren izan zen igandean. Sasoi egokian da gaur ere irabazteko. Sei urte eman zituen esku hartu gabe Mallabikoan, eta iaz berregertu zen, eta txapela jantzi (94 jasoaldi).

Izeta III.a izan zen bigarren (88 jasoaldi), eta agerian utzi zuen bikain moldatzen dela era horretako lanean. Lehia polita izango du Egirekin, iaz 6 jasoaldiko alde kendu bazion ere. Urpe kirolari mardula da, baina iaz laugarren izan zen (79 jasoaldi). Lasartek estreinakoa izango du, baina Igeldoko Harrian neurria eman zuen.

Mallabiko XI. Saria

Harrijasotzaileak: Joxeramon Iruretagoiena *Izeta II.a*, Jexuxmari Iruretagoiena *Izeta III.a*, Javier Arriola *Egi*, Bernardo Ureta *Urpe* eta Mikel Lasarte.

Tokia: Mallabiko kiroldegia (Bizkaia).

Ordua: 17:30ean.

Lehen postua erabakita egon arren, aldaketa ugari egon daitezke gaur sailkapenean

R. B. | ZARAUTZ

Oriok atzo erakutsi zuen erabakiteko nagusitasunak bigarren maila batean utzi zuen atzoko estropadan talde askoren artean egon zen parekotasuna. Sailkapenari begiratuta esan behar da tarte txikiak daudela bigarren eta zortzigarren postuetan dauden ontzien artean.

Hasteko, lehia gogorra espero da bigarren posturako Koxta-

pe, Santurtzi eta Urdabairen artean. Pasaitarrek bost segundo kentzen dizkiote *Sotera*-ri, eta zortzi *Bou Bizkaia*-ri. Busturialdeko traineruak laugarren kaletik jardun behar izan zuen atzo eta lehen postuetarako borrokan sartzeko aukerak galdu zituen, azkenean laugarren bukatu zuen arren. Patxi Bilbaoren mutilak sailkapeneko bigarren postuaren bila joango dira gaur. Isuntza, San Pedro, Zumaia-

Getaria eta Hondarribia daude hurrengo multzoan. Laurak batera lehiatuko dira gaur bigarren txandan, eta hiru segundo baino ez daude lau ontzien artean. Hondarribiak, laugarren kaletik arituta, eta Zumaia-Getariak espero baino maila makalagoa eman zuten atzo. Isuntza eta San Pedrok, ostera, gustura bukatu zuten. Garbi dago bigarren txandako lau ontziek lehia polita eskainiko dutela.

Castroko bandera jokoan gaur

Castroko bandera jokatu da gaur iluntzeko 19:00etatik aurrera. Kaiku, Mutriku, Pontejos eta Santander B lehiatuko dira